# 2021eko MEMORIA

Segurtasun Sailburuordetza
Viceconsejería de Seguridad



## TRAFIKOA - TRÁFICO

*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO


Carrefour

# › Aurkibidea


1. COVID-19AREN INPAKTUA
2. EUSKADIKO ISTRIPU-
-TASAREN 2021EKO
BALANTZEA
3. 2021EKO JARDUERAK
4. PROZEDURA
ADMINISTRATIBOAK
5. BIDE-SEGURTASUNEKO ETA
MUGIKORTASUN SEGURURAKO
ETA IRAUNKORRERAKO PLAN
ESTRATEGIKOA 2025


# › Índice


1. IMPACTO COVID-19
2. BALANCE 2021 DE
ACCIDENTALIDAD
EN EUSKADI
3. ACCIONES 2021
4. PROCEDIMIENTOS
ADMINISTRATIVOS
5. PLAN ESTRATÉGICO DE
SEGURIDAD VIAL Y
MOVILIDAD SEGURA
Y SOSTENIBLE 2025




# › Aurkibidea


1. COVID-19AREN INPAKTUA
2. EUSKADIKO ISTRIPU--TASAREN 2021EKO BALANTZEA
3. 2021EKO JARDUERAK
4. PROZEDURA ADMINISTRATIBOAK
5. BIDE-SEGURTASUNEKO ETA MUGIKORTASUN SEGURURAKO ETA IRAUNKORRERAKO PLAN ESTRATEGIKOA 2025


# › Índice


1. IMPACTO COVID-19
2. BALANCE 2021 DE ACCIDENTALIDAD EN EUSKADI
3. ACCIONES 2021
4. PROCEDIMIENTOS ADMINISTRATIVOS
5. PLAN ESTRATÉGICO DE SEGURIDAD VIAL Y MOVILIDAD SEGURA Y SOSTENIBLE 2025

# 1. COVID-19AREN INPAKTUA

2020ko martxoan hasitako osasun-krisi globalak 2021. urtearen zati handi batean ere mugikortasunaren gaineko eragina izaten jarraitu du, nahiz eta eragin hori txikiagoa izan den. Hasieran batean, 2021eko urtarrilean gaueko ordutegian konfinamendua eta Euskaditik irteteko eta sartzeko mugikortasun-murriztapenak ezarri zirenez, ezinezkoa izan zen trafiko-fluxuak berreskuratzea eta pandemia aurreko atalasetara heltzea.  Hala ere, maiatzean bigarren alarma-egoera amaitu ondoren eta urrian Euskadiko osasun-larrialdiaren amaiera dekretatu ondoren, 2021ean mugikortasuna arian-arian berreskuratzen joateko aukera ireki zen eta 2021. urtearen amaiera aldean, une batzuetan 2019ko erregistroak gainditu ziren.

Mugikortasunaren berreskuratze horrek, ordea, ez du istripu-kopuru handiagoa ekarri. Aitzitik, 2021ean Euskadiko bide-sareko istripu-tasa zein heriotza-tasa txikitu dira, 2019ko kopuruen aldean. Ertzaintzaren datuen arabera, 2021. urtean 7.400 istripu erregistratu dira (2019an baino %13 gutxiago eta 2020an baino %15 gutxiago).

2021ean zehar gertatu den mugikortasunaren berreskuratze progresiboa Euskadiko hiriburuetarako sarbideetan zein Biriatuko mugako pasabidean eta ibilbide luzeko trafikoan ere igarri da. Gogorarazi behar da 2020an hiriko mugikortasunak batez beste %65ean egin zuela behera eta une batzuetan, konfinamendu orokorra zegoenean, %90ean ere txikitu zela. 2021eko lehen bi hilabeteetan, Euskadiko hiriburuetarako sarbideetan trafikoaren fluxuak  2020an baino %22 txikiagoak izan ziren. Hala ere, martxotik aurrera batez beste %47an handitu ziren, 2020. urteko kopuruen aldean (2019ko kopuruetara iristeko %2a baino ez zen falta izan).

Ibilbide luzeko trafikoak zein mugaz gaindikoak 2021ean, oro har, hiriko mugikortasunak bezalako portaera izan dute, baina 2020. urtean baino aldaketa leunagoak (erori eta berreskuratu) izan dituzte, mugikortasunari buruzko grafiketan ikus daitekeen

# 1. IMPACTO COVID-19

La crisis sanitaria global iniciada en marzo de 2020 ha continuado incidiendo en la movilidad durante buena parte de 2021, aunque en un grado mucho menor. Inicialmente, el confinamiento en horario nocturno y las restricciones de movilidad para entrar y salir de Euskadi, adoptadas en enero de 2021, limitaron la capacidad de recuperación de los flujos de tráfico e impidieron alcanzar los umbrales anteriores a la pandemia. Sin embargo, el fin del segundo estado de alarma en mayo y el fin de la situación de emergencia sanitaria en Euskadi decretado en octubre, abren sus puertas a una recuperación progresiva de la movilidad en 2021 que, en su recta final, llega incluso a superar puntualmente los registros de 2019.

Esa recuperación de la movilidad, no obstante, no se ha traducido en un mayor número de accidentes. Por el contrario, en 2021 ha descendido tanto la mortalidad como la accidentalidad en la red viaria vasca, respecto a 2019. Según datos de la Ertzaintza, durante 2021 se han registrado 7.400 accidentes (un 13% menos que en 2019 y un 15 % más que en 2020).

La recuperación progresiva de la movilidad durante 2021 se ha experimentado tanto en el acceso a las capitales vascas, como en el paso fronterizo de Biriatou y en el tráfico de largo recorrido. Cabe recordar que en 2020 la movilidad urbana cayó de media un 65%, llegando a registrarse un descenso de casi el 90% en momentos de confinamiento generalizado. Durante los dos primeros meses de 2021, los flujos de tráfico en los accesos a las capitales vascas descendieron un 22% respecto a 2020. Sin embargo, a partir de marzo se registra un incremento medio del 47 % con respecto a 2020, (quedando a tan solo un 2% de alcanzar los niveles de 2019).

El comportamiento, tanto del tráfico de largo recorrido, como del transfronterizo durante 2021 con respecto al de 2020 ha sido, en general, similar al de la movilidad urbana, pero con variaciones (caídas y recuperaciones) menos pronunciadas y más suaves, tal y como se

bezala. 2021eko udako mugaz gaindiko trafikoari dagokionean, nabarmendu behar da Itsasartea Pasatzeko Operazioa bigarren urtez jarraian bertan behera geratu dela eta, horren ondorioz, aurten ere Europako iparraldetik Afrikako iparralderako bidean Euskadi urtero zeharkatzen duen nazioarteko trafikoa nabarmen txikitu dela.

puede apreciar en las siguientes gráficas de movilidad. Respecto al tráfico transfronterizo correspondiente al periodo estival 2021, cabe destacar que la suspensión de la Operación Paso del Estrecho por segundo año consecutivo, ha contribuido de nuevo a una reducción significativa del tráfico internacional que cada año atraviesa Euskadi procedente del norte de Europa con destino al norte de África.

## HIRIBURUETAKO SARBIDE-SAREAN 2020-2021 ARTEKO TRAFIKOAREN KONPARAKETA EUSKADIN

## COMPARATIVA DEL TRÁFICO DE ACCESO A CAPITALES EN EUSKADI 2020-2021




**2021EKO DATA AIPAGARRIAK**

- **Urtarrilak 12:** Lehendakariaren Dekretua, gaueko ordutegian konfinamendua.
- **Urtarrilak 22:** Lehendakariaren Dekretua, EAEko lurraldean pertsonak sartzeko eta ateratzeko mugak.
- **Maiatzak 9:** Bigarren alarmaren egoeraren bukaera.
- **Urriak 5:** Lehendakariaren Dekretua, osasun alarma egoeraren bukaera Euskadin.
- **Abenduak 2:** Lehendakariaren Dekretua, bigarren osasun alarma egoera Euskadin.

**FECHAS SIGNIFICATIVAS DEL 2021**

- **12 enero:** Decreto del Lehendakari, confinamiento en horario nocturno.
- **22 enero:** Decreto del Lehendakari, limitaciones para entrar y salir de la CAPV.
- **9 mayo:** Fin del segundo estado de alarma.
- **5 octubre:** Decreto del Lehendakari, fin de la situación de emergencia sanitaria en Euskadi.
- **2 diciembre:** Decreto del Lehendakari, segunda situación de emergencia sanitaria en Euskadi.

## IBILBIDE LUZEKO TRAFIKOAREN 2020-2021 ARTEKO KONPARAKETA EUSKADIN

## COMPARATIVA DEL TRÁFICO DE LARGO RECORRIDO EN EUSKADI 2020-2021




## BIRIATOUKO MUGAN 2020-2021 ARTEKO TRAFIKOAREN KONPARAKETA

## COMPARATIVA DEL TRÁFICO EN LA FRONTERA DE BIRIATOU 2020-2021



# 2. EUSKADIKO ISTRIPU-TASAREN 2021EKO BALANTZEA

## 2.1 ERTZAINTZAK ERREGISTRATUTAKO ISTRIPUAK

2021. urtean Ertzaintzak Euskadiko errepideetan 7.400 trafiko-istripu erregistratu ditu. Horietatik 2.401 istriputan biktimak egon dira eta 4.999 istriputan ez da biktimarik egon. Istripu horietan guztietan 13.196 ibilgailu eta 14.142 pertsona egon dira inplikatuta eta, horien ondorioz, hildakoak 36 izan dira, larri zauritutakoak 286 eta arin zauritutakoak 2.968.

2021. urteko ezbehar-tasari buruzko datuei begiratuta, aurreko urteetako datuen aldean, istripuen guztizko kopurua 2020koa baino %15 handiagoa izan da, baina 2019koa baino %13 txikiagoa. Hildakoen eta larri zauritutakoen kopurua, hurrenez hurren, 2020 urtean baino %6 eta %3 handiagoak izan dira. Hala ere, adierazleek erakusten dute pandemiaren aurreko urtearen (2019) aldean hobekuntza egon dela: 2021ean hildakoak %12 gutxiago izan dira eta zauritu larriak %6 gutxiago.

# 2. BALANCE 2021 DE ACCIDENTALIDAD EN EUSKADI

## 2.1 ACCIDENTES REGISTRADOS POR LA ERTZAINTZA

Durante el año 2021 la Ertzaintza ha registrado en las carreteras de Euskadi 7.400 accidentes de tráfico, de los que 2.401 son accidentes con víctimas y 4.999 accidentes sin víctimas. En todos los accidentes se vieron implicados 13.196 vehículos y 14.142 personas, de las cuales 36 fallecieron, 286 resultaron heridas graves y 2.968 heridas leves.

Observando los datos de siniestralidad con respecto a los últimos años, en 2021 el número total de accidentes ha experimentado un aumento del 15% respecto al año anterior, si bien supone un 13% menos que en 2019. El número de personas fallecidas y heridas graves ha aumentado un 6% y un 3% respectivamente, respecto a 2020. No obstante, los indicadores representan una mejoría respecto a 2019, año pre-pandemia: así, en 2021 ha habido un 12% menos de personas fallecidas y un 6% menos de personas heridas graves.



## TRAFIKO ISTRIPUAK 2021AN / ACCIDENTES DE TRÁFICO 2021

| | 2018 | 2019 | 2020 | 2021* | DIF % 2021-2020 |
|---|---|---|---|---|---|
| **ISTRIPUAK GUZTIRA/TOTAL DE ACCIDENTES** | **7.835** | **8.476** | **6.461** | **7.400** | **14,5** |
| Biktimak eragin dituzten istripuak / Accidentes con víctimas | 2.601 | 2.634 | 2.093 | 2.401 | 14,7 |
| Biktimarik gabeko istripuak / Accidentes sin víctimas | 5.234 | 5.842 | 4.368 | 4.999 | 14,4 |
| **INPLIKATUTAKO IBILGAILUAK / VEHÍCULOS IMPLICADOS** | **14.124** | **15.120** | **11.328** | **13.196** | **16,5** |
| **INPLIKATUTAKO PERTSONAK / PERSONAS IMPLICADAS**** | **15.558** | **16.279** | **11.958** | **14.142** | **18,3** |
| Hildakoak / Fallecidas | 37 | 41 | 34 | 36 | 5,9 |
| Larri zaurituak / Heridas graves | 300 | 304 | 277 | 286 | 3,2 |
| Zauritu arinak / Heridas leves | 3.239 | 3.241 | 2.475 | 2.968 | 19,9 |

*Behin behineko datuak 2022/01/13
**Zauritu gabekoak ere barruan daude.

*Datos provisionales 13/01/2022
**Se incluyen personas ilesas

### EUSKADIKO ERREPIDEETAN BIKTIMAK ERAGIN DITUZTEN ISTRIPUEN BILAKAERA

Biktimak eragin dituzten istripuen seriea estatistikoki datu fidagarriena da bideko istripu-tasarekin lotutako serie guztien artean eta datu horrek, hain zuzen, beheranzko joera izan du 2003tik aurrera.

### EVOLUCIÓN DE LOS ACCIDENTES CON VÍCTIMAS EN LAS CARRETERAS DE EUSKADI

La serie de los accidentes con víctimas, que es el dato estadísticamente más fiable entre todas las series relacionadas con la siniestralidad vial, mantiene una tendencia descendente desde 2003.

## EUSKADIKO ERREPIDEETAN BIKTIMAK ERAGIN DITUZTEN ISTRIPUEN BILAKAERA

## EVOLUCIÓN DE LOS ACCIDENTES CON VÍCTIMAS EN LAS CARRETERAS DE EUSKADI




* Behin behineko datuak 2022/01/13 / *Datos provisionales 13/01/2022

## EUSKADIKO TRAFIKO ISTRIPUAK (ERTZAINTZA)

Euskadiko errepideetan gertatzen diren trafiko-istripuen ezaugarriak urte batetik bestera ez dira asko aldatzen eta 2021eko trafiko-istripuen ezaugarrien artean hauek azpimarratu behar ditugu:

- Istripua izan duten hamar pertsonatatik zazpi gizonezkoak izan dira, eta hiru emakumezkoak. Hildakoak eragiten dituzten istripuen kasuan, gizonezkoen ehunekoa %88ra igo da eta emakumezkoena %12ra jaitsi.
- Trafiko-istripuetan inplikatutako pertsonen %22 inguru 45 eta 54 urte bitartekoak izan dira, %20 35 eta 44 urte bitartekoak, %19 25 eta 34 urte bitartekoak, %16 15 eta 24 urte bitartekoak, %13 55 eta 64 urte bitartekoak, %7 65 urte edo gehiagokoak eta gainerako %3a 15 urtetik beherakoak. 2021ean errepideetako istripuetan inplikatuta egon diren pertsonen adinaren araberako banaketa hori ez da asko aldatu, aurreko urteetan istripua izan zutenen adinaren araberako banaketaren aldean.
- Istripua izan dutenen %89 18 eta 65 urte bitartekoak izan dira eta 65 urtetik gorakoak guztien artetik %7 izan dira. Larri zauritutakoen banaketa, ordea, asko aldatu da; izan ere, larri zauritutakoen artean orain 65 urtetik gorakoak %18 dira. Hildakoen artean, %89k 18 eta 65 urte bitartean dituzte; eta gainerako %11k 65 urtetik gora. 2021ean, hildako biktimen artean ez da 18 urtetik beherakorik egon.
- Istripua izan duten pertsonen %79 gidariak izan dira, %20 bidaiariak eta %1 oinezkoak.
- Inplikatutako ibilgailuen %62 turismoak izan dira, %4 ziklomotoreak edo motozikletak, %4 bizikletak, eta gainerakoak pertsonak edo salgaiak garraiatzen dituzten ibilgailuak izan dira.
- Biktimak eragin dituzten istripuen %46 abian zebiltzan ibilgailuen arteko talkengatik gertatu dira, %17 erorketengatik, %15 segurtasun-hesiarekin edo bideko beste elementu batekin talka egiteagatik, %5 iraulketengatik, %4 pertsonak harrapatzeagatik eta %3 galtzadatik irteteagatik edo amiltzeagatik. Gainerako %10aren barruan,

## ACCIDENTES DE TRÁFICO DE EUSKADI (ERTZAINTZA)

En cuanto a las características de los accidentes de tráfico producidos en las carreteras vascas en 2021, que además se repiten con ligeras variaciones todos los años, podemos destacar las siguientes:

- Siete de cada diez personas accidentadas son varones y tres son mujeres. En los accidentes mortales, incluso aumenta el porcentaje de varones hasta el 88 % y desciende el de mujeres al 12%.
- En torno al 22% de las personas implicadas en accidentes de tráfico tiene entre 45 y 54 años, el 20% entre 35 y 44, el 19% entre 25 y 34, el 16% entre 15 y 24, el 13% entre 55 y 64, el 7% 65 o más años y el 3% restante tiene menos de 15 años. Esta estructura por edad de las personas implicadas en accidentes en carretera en 2021 varía muy poco con la estructura por edad de las accidentadas en los años anteriores.
- El 89% de las personas accidentadas tiene entre 18 y 65 años, mientras que las personas mayores de 65 años representan el 7 % respecto al total. La distribución cambia considerablemente en las personas heridas graves, pasando a representar las personas mayores de 65 años un porcentaje del 18% sobre el total de personas heridas graves. En cuanto a las personas fallecidas, el 89% tiene entre 18 y 65 años, y el 11% restante, más de 65 años. En 2021 no ha habido menores de 18 años entre las víctimas mortales.
- El 79% de las personas accidentadas son conductoras, el 20% ocupantes y el 1% viandantes.
- El 62% de los vehículos implicados son turismos, el 4% ciclomotores o motocicletas, el 4% bicicletas y el resto vehículos que transportan personas o mercancías.
- El 46% de los accidentes con víctimas ha sido consecuencia de una colisión de vehículos en marcha, el 17% debido a caídas, el 15% por choque contra barrera de seguridad u otro elemento de la vía, el 5% por vuelcos, el 4% por atropellos a personas y el 3% por salidas de la calzada o despeñamientos. Dentro del 10% restante, que com-



beste istripu mota bat kategoriaren barruan, %1 animaliak harrapatzeagatik gertatu dira.

- Bidearen egoerari dagokionez, esan behar da kasuen %67an lehor eta garbi zegoela, eta gainerako %33an bidearen gainazalean bidearen egoera baldintzatzen zuen zerbait zegoela: ura, elurra, izotza, olioa, etab.
- Biktimak eragin dituzten istripuen banaketan ikusten da istripuak erdi eta erdi banatzen direla, lanegunetan alde batetik eta bestetik jai-egunetan edo jai-egunaren aurreko edo hurrengo egunetan.
- Biktimak eragin dituzten istripuen %75 egunez gertatu dira, %19 gauez eta %6 trantsizio-uneetan, egunsentian eta ilunabarrean.
- Istripua izan duten gidariek, oro har, segurtasun-uhala eta kaskoa erabiltzen zuten.

pletan otro tipo de accidentes, un 1% lo constituyen los atropellos a animales.

- En cuanto al estado de la vía, en el 67% de los casos estaba seca y limpia y en el 33% restante existía algún condicionante en la superficie de la vía: agua, nieve, hielo, aceite, etc.
- Los accidentes con víctimas se distribuyen a partes iguales entre los días laborables, por un lado, y los festivos y anterior o posterior a festivo, por el otro.
- El 75% de los accidentes con víctimas se producen de día, el 19% de noche y el 6% en los momentos de transición de amanecer o atardecer.
- El uso del cinturón o casco por parte de las personas conductoras accidentadas es generalizado.

## 2.2 ERTZAINTZAK ETA UDALTZAINGOEK ERREGISTRATUTAKO ISTRIPUAK

2021ean, Euskadiko kale eta errepideetan, hildakoak eragin dituzten 38 trafiko-istripu gertatu dira (Ertzaintzak 32 erregistratu ditu eta udaltzaingoek 6) eta, horien ondorioz, istripuaren unean bertan edo istriputik 24 ordu igaro aurretik, 42 pertsona hil dira. Guztira, 2021ean, hildakoak eragin dituzten trafiko-istripuak iaz baino 4 gehiago izan dira eta 4 pertsona gehiago hil dira.

Iazko datuen aldean, eta lurralde historikoaren arabera banatua, Araban nabarmen handitu da trafiko-istripuan hil direnen kopurua; izan ere, 2021ean 10 erregistratu dira eta 2020ean 5 erregistratu ziren. Bizkaian zein Gipuzkoan hildakoak 16 izan dira, Bizkaian

## 2.2 ACCIDENTES REGISTRADOS POR LA ERTZAINTZA Y POLICÍAS LOCALES

En el año 2021 se han producido en las calles y carreteras de Euskadi 38 accidentes de tráfico mortales (32 registrados por la Ertzaintza y 6 por las Policías Locales), con el resultado de 42 personas fallecidas en el acto o antes de transcurridas las primeras 24 horas. En total, en 2021, ha habido 4 accidentes de tráfico mortales más que el año pasado y han fallecido 4 personas más.

Respecto al año anterior y por TTHH, en Araba se ha producido un aumento significativo de las personas fallecidas en accidentes de tráfico, registrándose 10 en 2021 respecto a las 5 de 2020. Tanto en Bizkaia como en Gipuzkoa se mantiene la cifra en 16; en territorio vizcaíno la cifra es idéntica a la del año 2020, mien-

2020an ere 16 izan ziren eta Gipuzkoan 2020an baino bat gutxiago. Euskadin hildakoak eragin dituzten trafiko-istripuen bilakaerari begiratzen badiogu, hurrengo grafikoan agertzen denari, hain zuzen, argi dago 2002. urtetik beherantz joan dela, 2014. urtean erregistratutako gutxieneko kopurura heldu arte, urte horretan hildakoak 29 izan baitziren. Ordutik, hildakoen kopurua aldatzen joan da, 2015ean 53 izan baitziren eta 2021ean 42.

## ISTRIPU-TASAREN TIPOLOGIA

- Hildakoen %81 gidariak izan dira (%6 bizikleta-gidariak, %47 motozikleta-gidariak eta gainerako %47ak turismo edo beste ibilgailu batzuen gidariak); %17 bidaiariak (%86 turismoetako eta beste ibilgailu batzuetako bidaiariak eta %14 motozikletako bidaiariak) eta %2 oinezkoak izan dira (turismo batek harrapatutako pertsona bat).
- Hildako guztien artean, %48 (20 pertsona) kolektibo zaurgarrietakoak izan dira: 17 motorrez zebiltzan, 2 txirrindulariak ziren eta 1 oinezko bat zen. 2020ko kopuruen aldean, zenbaki absolututan, kolektibo zaurgarrietako hildakoak 3 gehiago izan dira.
- Hildakoen %88 gizonezkoak izan dira eta %12 emakumezkoak.

tras que en Gipuzkoa se reduce en una el número de personas fallecidas. Si observamos la evolución de los accidentes mortales de tráfico en Euskadi, como muestra el siguiente gráfico, vemos cómo desde 2002 ha seguido una línea descendente hasta llegar al mínimo registrado en 2014, con 29 personas fallecidas. Desde entonces, el número de personas fallecidas ha variado desde 53 en 2015, a 42 en 2021.

## TIPOLOGÍA DE LA ACCIDENTALIDAD

- El 81% de las personas fallecidas son conductoras (el 6% de bicicleta, el 47% de motocicleta y el 47% restante de turismo u otros vehículos); el 17% son ocupantes (el 86% de turismos y otros y el 14% de motocicletas) y el 2% restante son viandantes (una persona atropellada por un turismo).
- Del total de personas fallecidas, el 48% (20 personas) pertenece al colectivo de vulnerables: 17 iban en moto, 2 eran ciclistas y 1 era viandante. Respecto a 2020, y en números absolutos, ha aumentado en 3 el número de personas fallecidas pertenecientes al colectivo vulnerable.
- El 88% de las personas fallecidas son varones y el 12% restante mujeres.




## TRAFIKO-ISTRIPUETAN HILDAKOEN BILAKAERA

(ERTZAINTZA+UDALTZAINGOAK)

## EVOLUCIÓN PERSONAS FALLECIDAS EN ACCIDENTES DE TRÁFICO

(ERTZAINTZA+ POLICIAS LOCALES)

- 2020an eta 2021ean hildakoen tipologiari begiratuta, esan behar da 2021ean hildako gidarien (+5) eta bidaiarien (+4) kopurua handitu dela eta oinezkoena txikitu (-5).
- EUSTATen arabera, Euskadin trafiko-istripuak, 30 urtera artekoen artean, hirugarren heriotza-kausa dira.

- En cuanto a las diferencias en la tipología de las personas fallecidas en 2021 respecto a la de las fallecidas en 2020, aumenta el número de personas conductoras (+5) y ocupantes (+4), mientras que disminuye el de las personas viandantes (-5).
- En Euskadi, los accidentes de tráfico son la tercera causa de mortalidad hasta los 30 años, según el EUSTAT.

### HILDAKOEN PORTZENTAJEA ADINAREN ARABERA:

- Hildako gidarien %12 25 urtetik beherakoak izan dira; %32 25 eta 44 urte bitartekoak, %47 45 eta 64 urte bitartekoak eta %9 65 urtekoak edo gehiagokoak.
- Hildako bidaiarien artean, adinaren araberako portzentajea honela banatzen da: %29 25 eta 44 urte bitartekoak izan dira; ia portzentaje bera errepikatzen da adinaren araberako hurrengo bi banaketetan; izan ere %28ko portzentajea dagokie 14 eta 24 bitarteko adin-tarteari zein 45 eta 64 urte bitartekoari; gainerako %15a 65 urte edo gehiagokoak izan dira.
- Hil den oinezko bakarrak 19 urte zituen.

### PORCENTAJES POR EDAD DE LAS PERSONAS FALLECIDAS:

- De las personas conductoras fallecidas, el 12% es menor de 25 años, el 32 % tiene entre 25 y 44 años, el 47% entre 45 y 64 años y el 9% 65 años o más.
- Entre las personas ocupantes fallecidas, el porcentaje por edad se reparte de la siguiente manera: el 29% tiene entre 25 y 44 años de edad; casi el mismo porcentaje continua ordenando la distribución, correspondiendo un 28% a cada una de las franjas de edad de 14 a 24 años y de 45 a 64 años; el 15% restante tiene 65 años o más.
- La única persona viandante fallecida tenía 19 años.

## TRAFIKO-ISTRIPUETAN HILDAKOEN BILAKAERA, LLHHETAN

(ERTZAINTZA+UDALTZAINGOAK)

## EVOLUCIÓN PERSONAS FALLECIDAS EN ACCIDENTES DE TRAFICO POR TTHH

(ERTZAINTZA+ POLICIAS LOCALES)



## KOLEKTIBO ZAURGARRIA

Hildakoen %48 inguru kolektibo zaurgarrietakoak izan dira eta horren barruan %2 oinezkoak izan dira, %41 moto-gidariak eta ia %5 txirrindulariak.

### OINEZKOAK

2020an sei oinezko hil ziren harrapatzeengatik; 2021ean, ordea, bakarra izan da: zoritxarrez, 19 urteko gazte bat hil zen.

### MOTOR-GIDARIAK

2021ean hil diren moto-gidariei dagokienean, aipatu behar da gidari guztiak gizonezkoak izan direla (16) eta hildako motozikleta-bidaiaria emakumezko bat izan dela (1). 2015. urtetik hona hil diren emakume motorzaleen artean (4), bi gidariak ziren eta beste biak bidaiariak; hortaz, azken 7 urtean, guztira kolektibo horren barruko heriotza guztien %5.

## COLECTIVO VULNERABLE

Cerca del 48% de las personas fallecidas pertenecía a un colectivo vulnerable, siendo el 2% viandantes, el 41% motoristas y casi el 5% ciclistas.

### VIANDANTES

Frente a las seis personas viandantes que perdieron la vida en 2020, víctima de un atropello, durante 2021 sólo ha habido que lamentar un accidente mortal: el de un joven de 19 años de edad.

### MOTORISTAS

Entre las personas motoristas fallecidas en 2021 destaca que todos los conductores eran hombres (16) y la ocupante de motocicleta fallecida era mujer (1). Del total de las mujeres motoristas fallecidas desde el año 2015 (4), dos eran conductoras y otras dos ocupantes de motocicleta, lo que supone, en su conjunto, un 5% sobre el total de los fallecimientos de este colectivo en los últimos 7 años.



## HILDAKOAK (KOLEKTIBO ZAURGARRIA) | PERSONAS FALLECIDAS (COLECTIVO VULNERABLE)




## HILDAKO MOTORZALEEN BILAKAERA, SEXUAREN ARABERA | EVOLUCIÓN POR SEXO DE PERSONAS MOTORISTAS FALLECIDAS



# 3. 2021EKO JARDUERAK

## 3.1 BIDE-HEZIKETA ETA -PRESTAKUNTZA

BIDE-HEZIKETA:

**Trafiko-istripuak prebenitzeari buruzko sentsibilizazio-ekintzak, unibertsitatez kanpoko hezkuntza-sistemako ikasleei zuzendutakoak.**

"*Gerta dakizuke / Te puede pasar*" programa, trafiko-istripuen ondoriozko hezur-muineko lesioak prebenitzeko helburua daukana.

- Istripuei buruzko lekukotzen 190 saio, Bigarren Hezkuntzako zentroetan.
- 5.365 parte-hartzaile.

"*Norabide aldaketa / Cambio de sentido*" antzerki-forum programa. 14 eta 16 urte bitarteko gazteen artean bideko jokabide arriskutsuak prebenitzeko helburua daukana.

- 20 saio.
- 464 parte-hartzaile.

# 3. ACCIONES 2021

## 3.1 EDUCACIÓN Y FORMACIÓN VIAL

EDUCACIÓN VIAL:

**Acciones de sensibilización sobre prevención de accidentes de tráfico dirigidas al alumnado del sistema educativo no universitario.**

Programa "*Gerta dakizuke / Te puede pasar*" orientado a prevenir lesiones medulares provocadas por accidentes de tráfico.

- 190 sesiones de testimonios de accidentes, realizadas en centros de Educación Secundaria.
- 5.365 participantes.

Programa Teatro fórum "*Norabide guztiak / Cambio de sentido*" dirigido a prevenir conductas de riesgo vial entre jóvenes de 14 a 16 años.

- 20 sesiones.
- 464 participantes.





**Bideko arrisku-taldeekin lan egiten duten hezitzaile-entzako prestakuntza.**

*Ikasgelan bide-arriskuen prebentzioari buruzko* online ikastaroak, Hezkuntza Saileko Prest_Gara programa-ren barruan daude eta Trafiko Zuzendaritzaren gela birtualean egin dira:

- 3 ikastaro.
- 23 parte-hartzaile.

**Udaltzaingoei eta Ertzaintzari bide-heziketaren ar-loko prestakuntza eta laguntza.**

Bide-heziketari buruzko oinarrizko ikastaroak eta ho-bekuntza-ikastaroak udaltzainentzat:

- Ikastaro 1 erdi-presentzial.
- 9 parte-hartzaile.

**Kolektibo zaurgarrientzako sentsibilizazio- eta pre-bentzio-programak: moto-gidariak, txirrindulariak, MPIak eta adinekoak.**

**Moto-gidariak**
125 cc-tik gorako motozikletak seguru gidatzeko ikas-taroak: Ekintza hori *Jar zaitez nire gurpiletan/ Ponte en mis ruedas* izeneko estrategiaren barruan txertatzen da.

- 4 ikastaro.
- 100 parte-hartzaile.

**Formación dirigida a educadores/as que trabajan con grupos de riesgo vial.**

Cursos online de *"Prevención de riesgos viales en el aula"* incluidos en el programa Prest_Gara del Departamen-to de Educación y realizados en el aula virtual de la Dirección de Tráfico:

- 3 cursos.
- 23 participantes.

**Formación y apoyo a Policías Locales y Ertzaintza en materia de Educación Vial.**

Cursos básicos y de perfeccionamiento de Educación Vial dirigidos a policías locales

- 1 curso semipresencial.
- 9 participantes.

**Programas de sensibilización y prevención en colec-tivos vulnerables: motoristas, ciclistas, VMPS y per-sonas mayores.**

**Motoristas**
Cursos de conducción segura de motocicletas de más de 125 cc. Acción enmarcada en la estrategia *Jar zaitez nire gurpiletan/ Ponte en mis ruedas.*

- 4 cursos.
- 100 participantes.

**Txirrindulariak**
*Bizikletan/Andar en bici* aldizkariarekin kolaboratu da.

- 8 artikulu argitaratu dira.

Bilbao Bilbao nazioarteko martxa zikloturistarekin kolaboratu da.

35.00 parte-hartzaileri bidali zaizkie segurtasun-mezuak eta promozioko materiala banatu zaie.
Sonia Díaz de Corcuera Eusko Jaurlaritzaren Trafikoko zuzendariak inauguratu zuen martxa hori.

**Adinekoak**
*Adinekoen mugikortasun segurua: erronka berriak / Nuevos retos en la movilidad segura de las personas mayores* jardunaldi birtuala.

- 2021eko otsailaren 23an egin da.
- 27 parte-hartzaile.

**Ciclistas**
Colaboración con la revista *Bizikletan/Andar en bici.*

- 8 artículos publicados.

Colaboración con la marcha cicloturista internacional Bilbao Bilbao.

Envío de mensajes de seguridad y reparto de material promocional a 35.000 participantes.

Inauguración de la marcha por parte de la directora de Tráfico del Gobierno Vasco, Sonia Díaz de Corcuera.

**Mayores**
Jornada virtual *Adinekoen mugikortasun segurua: erronka berriak/ Nuevos retos en la movilidad segura de las personas mayores.*

- Celebrada el 23 de febrero de 2021.
- 27 participantes.









**Beste kolektibo batzuk**
Laneko bide-segurtasunari buruzko online ikastaroak, Hezkuntza Sailaren menpeko profesionalentzat.

- 5 ikastaro.
- 65 parte-hartzaile.

Laneko bide-segurtasunari buruzko online ikastaroak (IVAP), Euskadiko Administrazio Orokorreko langileentzat.

- 2 ikastaro.
- 38 parte-hartzaile.

**Beste ekintza batzuk**

2021/22 eskolako agenda:

- Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloko ikasleentzako 73.000 ale.

Lehen Hezkuntzako Zentroetarako online erronkak eta denbora-pasak.

Mugikortasun seguruari buruzko jokoak eta horiek Lehen Hezkuntzako geletan aplikatzeko gida didaktikoak.

Euskadiko Helduen Oinarrizko Hezkuntza-zentroetako ikasleentzat bide-segurtasunari buruzko programa bat diseinatu eta garatu da.

**Otros colectivos**
Cursos online de Seguridad Vial en el ámbito laboral, dirigido a profesionales dependientes del Departamento de Educación.

- 5 cursos.
- 65 participantes.

Cursos online de Seguridad Vial en el ámbito laboral (IVAP) dirigidos a personal de la Administración General de Euskadi.

- 2 cursos.
- 38 participantes.

**Otras actuaciones**

Agenda escolar 2021/22:

- 73.000 ejemplares dirigidos al alumnado de segundo y tercer ciclo de Educación Primaria.

Retos y pasatiempos online dirigidos a los centros de Educación Primaria.

Juegos de movilidad segura y guías didácticas para su aplicación en las aulas de Educación Primaria.

Diseño y desarrollo de un programa de seguridad vial para el alumnado de centros de Educación Básica de Personas Adultas de Euskadi.

## BIDE-PRESTAKUNTZA:

Bide-prestakuntzako irakasleentzako ikastaroaren 2019ko deialdia.

- 20 pertsonak lortu dute bide-prestakuntzako irakasle izateko gaitasun-agiria.

Bide-prestakuntzako irakasleentzako ikastaroaren 2020ko deialdia.

- 15 pertsona sartu dira irakaskuntza presentzialaren fasean. (2022ko urtarrilaren 10ean hasiko dela aurreikusten da).

Bide-prestakuntzako irakasleentzako ikastaroaren 2021eko deialdia.

- Proba teorikoa egin da. Proba praktikoa 2022ko urtarrilerako aurreikusita dago.
- 270 pertsona daude prozesuan izena emanda.

Gidarien eskola partikularrak zuzentzeko 2020ko deialdia.

- Inork (0) ez du lortu gidarien eskola partikularrak zuzentzeko gaitasun-agiria.

Gidarien eskola partikularrak zuzentzeko 2021eko deialdia.

- Hautaketa-proba oraindik ez da egin.
- Prozesuan 27 pertsona daude izena emanda.

Gidabaimena eta puntuak berreskuratzeko ikastaroak kudeatzea:

- 513 ikastaro egin dira.
- 4.428 parte-hartzaile.

## FORMACIÓN VIAL:

Convocatoria curso profesorado formación vial 2019.

- 20 personas obtienen el certificado de aptitud de profesor/a de formación vial.

Convocatoria curso profesorado formación vial 2020.

- 15 personas acceden a la fase de enseñanza presencial. (Inicio previsto el 10 de enero de 2022).

Convocatoria curso profesorado formación vial 2021.

- Ejecutada la prueba teórica. Prueba práctica prevista para enero de 2022.
- 270 personas inscritas en el proceso.

Convocatoria dirección escuelas particulares de conductores/as 2020.

- 0 personas obtienen el certificado de aptitud de director/a de escuelas particulares de conductores/as.

Convocatoria dirección escuelas particulares de conductores/as 2021.

- Prueba selectiva sin ejecutar.
- 27 personas inscritas en el proceso.

Gestionar cursos para la recuperación de puntos y del permiso de conducir

- 513 cursos realizados.
- 4.428 participantes.




# 3.2 BIDE-SEGURTASUNARI ETA MUGIKORTASUN SEGURU ETA IRAUNKORRARI BURUZKO TOPAKETAK

**INNOVABIDE MUGIKORTASUN ETA LOGISTIKA KLUSTERREAN**

Lekua: Arabako parke teknologikoa
2021eko azaroaren 12a

Trafikoko zuzendariak Innovabide proiektua aurkeztu zuen Garraio Teknologia Adimendunen XII ITS Euskadi Kongresuaren esparruan. Kongresuan Vitoria-Gasteizko Udaleko, Arabako Foru Aldundiako, Bizkaiko Foru Aldundiako, Tecnaliako eta besteak beste, Gertek, Repsol eta Irizar enpresetako hizlariek parte hartu zuten, eta horretan Trafikoko zuzendariak Innovabide sarea ezagutzera eman zuen, kudeaketa aurreratuko prozezuen bitartez bide-segurtasunaren erronkarekin konprometitua dauden enpresen sarea, hain zuzen. Dagoeneko Euskadiko 60 enpresa eta organizazio baino gehiago dira sare horren parte.

**JUNTOS EN EL ASFALTO**

Lekua: Arabako parke teknologikoa
2021eko ekainaren 15a

Trafikoko zuzendariak Hyundai Motor Españak sustatutako *Juntos en el asfalto* ekimenean parte hartu zuen. Ekimen horren helburua da bide-segurtasuna zaintzea eta errepidean txirrindularien eta ibilgailuen arteko bizikidetza sustatzea. Zuzendariak bizikidetza-ekimen horren garrantzia azpimarratu zuen, Eusko Jaurlaritzak kolektibo zaurgarriak, besteak beste, bizikletaren erabiltzaileak, babesteko Bide Estrategiari laguntzen diolako. Ekimen pribatu hori 2017an jarri zen martxan eta ordutik 10.000 txirrindulari baino gehiagok izan dute Hyundai laguntza-ibilgailu baten babesa.

# 3.2 ENCUENTROS DE SEGURIDAD VIAL Y MOVILIDAD SEGURA Y SOSTENIBLE

**INNOVABIDE EN EL CLUSTER DE MOVILIDAD Y LOGÍSTICA**

Lugar: Parque Tecnológico de Araba
12 de noviembre de 2021

La directora de Tráfico presentó el proyecto Innovabide en el marco del XII Congreso ITS Euskadi de Tecnologías Inteligentes de Transporte. En el Congreso, que contó con ponentes del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, de la Diputación Foral de Araba, de la Diputación Foral de Bizkaia, de Tecnalia y de empresas como Gertek, Repsol e Irizar, entre otras, la directora dio a conocer la Red Innovabide de empresas comprometidas con el gran reto de la Seguridad Vial a través de procesos de Gestión Avanzada. Una Red de la que forman parte ya más de 60 empresas y organizaciones de Euskadi.

**JUNTOS EN EL ASFALTO**

Lugar: Parque Tecnológico de Araba
15 de junio de 2021

La directora de Tráfico participó en la iniciativa *Juntos en el asfalto*, impulsada por Hyundai Motor España. Una iniciativa que tiene como objetivo preservar la seguridad vial y fomentar la convivencia de ciclistas y vehículos en la carretera. La directora puso en valor esta iniciativa de convivencia porque contribuye a los fines de la Estrategia Vial del Gobierno Vasco de protección a los colectivos más vulnerables, como es el caso de las personas usuarias de la bicicleta. Desde que se puso en marcha esta iniciativa privada en 2017, más de 10.000 ciclistas se han beneficiado de la protección de un vehículo de apoyo Hyundai.



## TRAFIKO ISTRIPUETAKO BIKTIMAK OROITZEKO MUNDUKO EGUNA

Lekua: Vitoria-Gasteiz.
2021eko azaroaren 21a

Trafikoko zuzendariak, Euskadiko Stop Bide Indarkeria elkartearen jarduera baten esparruan, trafiko-istripuetako biktima guztiak oroitu zituen, Arabako gizarteko eta Arabako erakundeetako ordezkariekin eta Bide Segurtasunari buruzko Fiskaltzarekin batera. Zuzendariak hildako biktimak eta haien senideak gogorarazi zituen eta Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendaritzak istripuak murrizteko, errepideetan arrisku-jokabideak zuzentzeko eta kolektibo zaurgarriak babesteko egiten dituen ekintza nagusiak azaldu zituen.

### PROGRAMA EUROPARRETAN PARTE HARTZEA

Trafiko Zuzendaritzak Europako proiektu hauetan parte hartu du: Arco Atlántico 3. fasea eta EU-EIP (European ITS Platform), Europa barneko errepideen sarean ITS (Intelligent Transport Systems) zerbitzuen eta sistemen ezarpena sustatzeko helburua daukana.

Hamabi bileratan parte hartu da, baina, pandemiaren ondoriozko mugikortasun-murrizketak direla eta, bideokonferentzia bidez egin dira. Halaber, EBk eta proiektuen idazkaritza teknikoak eskatutako txostenak egin dira.

## DÍA MUNDIAL EN RECUERDO DE TODAS LAS VÍCTIMAS DE ACCIDENTES DE TRÁFICO

Lugar: Vitoria-Gasteiz.
21 de noviembre de 2021

La directora de Tráfico recordó a todas las víctimas de accidentes de tráfico en el marco de una acción desarrollada por la Asociación Stop Violencia Vial de Euskadi, junto a representantes de la sociedad alavesa, de las instituciones alavesas y Fiscalía de Seguridad Vial. En su intervención recordó a todas las víctimas y familiares de personas fallecidas y explicó las principales acciones que se llevan a cabo desde la Dirección de Tráfico del Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco para frenar los accidentes, corregir los comportamientos de riesgo en carretera y proteger a los colectivos más vulnerables.

### PARTICIPACIÓN EN PROGRAMAS EUROPEOS

Participación de la Dirección de Tráfico en los proyectos europeos Arco Atlántico fase 3 y EU-EIP (European ITS Platform), cuyo objetivo principal es impulsar la implantación de sistemas y servicios ITS (Intelligent Transport Systems) en la red transeuropea de carreteras.

Se ha participado en doce reuniones celebradas por videoconferencia, debido a las restricciones de movilidad provocadas por la pandemia. Asimismo, se han realizado los informes exigidos por parte de la UE y secretaría técnica de los proyectos.

### ITS ESPAÑA XXI. KONGRESUAN PARTE HARTU DA

Lekua: Madrilgo IFEMA
2021eko uztailaren 14a

ITS España XXI. Kongresuan parte hartu da eta hor Espainiako ITS Datuen Fusiorako Batzordean lantzen ari den simulazio-gida bat aurkeztu da. Gida horretan jasota dago trafiko-eta garraio-modeloekin lotutako guztia, haien oinarrietatik hasita, horiek erabiltzeko eta balidatzeko irizpideetaraino; eta horrekin lortu nahi da gure herrian simulazioaren kultura handitzea eta sektore horretan lan egiten duten eragile guztiek onartzen dituzten parametro komunak ezartzea.

### TRAFIC KONGRESUAN PARTE HARTU DA

Lekua: Madrilgo IFEMA
2021eko azaroaren 3a

Trafiko Zuzendaritzak *Trafic* Kongresuan parte hartu du, Big Data eta Datuen Fusioa mahaien moderatzaile gisa.

### WEB-MINTEGIETAN PARTE HARTZEA

Antolatzailea: Geograma
2021eko azaroaren 10a

Trafiko Zuzendaritzak webinar honetan parte hartu du: *Road Safety, Eusko Jaurlaritzaren Trafiko Zuzendaritzaren plataforma, bide-segurtasunaren kudeaketan laguntzeko.*

### PARTICIPACIÓN EN XXI CONGRESO ITS ESPAÑA

Lugar: IFEMA Madrid
14 de julio de 2021

Se ha participado en el XXI Congreso ITS España presentando una Guía de Simulación que se está desarrollando dentro del Comité de Fusión de datos de ITS España. Dicha guía, que aborda todo lo relacionado con los modelos de tráfico y transporte, desde sus fundamentos hasta los criterios de uso y validación, pretende elevar la cultura de la simulación en nuestro país, estableciendo unos parámetros que sean comúnmente aceptados por todos los agentes que trabajan en este sector.

### PARTICIPACIÓN EN EL CONGRESO TRAFIC

Lugar: IFEMA Madrid
3 de noviembre de 2021

Participación de la Dirección de Tráfico en el Congreso *Trafic*, moderando la mesa de Big Data y Fusión de datos.

### PARTICIPACIÓN EN SEMINARIOS WEB

Organiza: Geograma
10 noviembre 2021

Participación de la Dirección de Tráfico en la webinar: *Road Safety, la plataforma de la Dirección de Tráfico del Gobierno Vasco de ayuda a la gestión de la seguridad vial.*



## 3.3 TRAFIKO ZUZENDARITZAREN JARDUNALDI PROFESIONALA

"EUSKAL ENPRESA, KUDEAKETA AURRERATUAREN BITARTEZ, BIDE-SEGURTASUNAREKIN KONPROMETITUTA"

Jardunaldi erdi-presentziala, osasun-krisiak sortutako egoeraren ondorioz.

- Lekua: Kursaal Kongresu Jauregia (Donostia).
- Data: 2021eko abenduaren 1a.
- Parte-hartzaileak: Nazioarteko eta tokiko hizlariak. 160 pertsonatik gora.

**PROGRAMA**

ONGI ETORRIA:
**Sonia Díaz de Corcuera.** Eusko Jaurlaritzaren Trafikoko zuzendaria.

HASIERA EMATEA:
**Josu Erkoreka.** Eusko Jaurlaritzaren lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburua.

## 3.3 JORNADA PROFESIONAL DE LA DIRECCIÓN DE TRÁFICO

"LA EMPRESA VASCA, COMPROMISO CON LA SEGURIDAD VIAL DESDE LA GESTIÓN AVANZADA"

Jornada semipresencial, debido a la situación de crisis sanitaria.

- Lugar: Palacio de Congresos Kursaal (Donostia).
- Fecha: 1 de diciembre de 2021.
- Participación: Ponentes internacionales y locales. Más de 160 personas.

**PROGRAMA**

BIENVENIDA:
**Sonia Díaz de Corcuera.** Directora de Tráfico del Gobierno Vasco.

APERTURA:
**Josu Erkoreka.** Vicelehendakari Primero y Consejero de Seguridad del Gobierno Vasco.






**1. PANELA:**
Innovabide, kudeaketa- eta berrikuntza-prozesuen bitartez bide-segurtasunarekin konprometitutako euskal enpresen sare estrategikoa.

**Bide-segurtasuna eta kudeaketa aurreratua.**
**Fernando Sierra,** EUSKALIT- Kudeaketa Aurreraturako Euskal Fundazioko zuzendari-kudeatzailea.

**Laneko bide-segurtasuna prebentzioaren bikaintasunerantz.**
**Maria del Mar Crespo,** MUTUALIAko prebentzio-arduraduna.

**Bide-segurtasunaren alde eginez, kalitate eta autoexigentziaren adierazle gisa.**
**Noemí Revilla,** GARLAN enpresako administrazio-arduraduna.

**2. PANELA:**
Mugikortasun seguruari buruzko ikuspegi europarra, enpresa-erakundeetako errealitatean. Garraioaren arloko bide-segurtasunean pertsonentzako hobekuntza-arloak identifikatzea.

**Vesafe gida elektronikoa: Laneko bide-segurtasuna hobetzea ikuspegi europarretik.**
**Annick Starren.** Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentziako proiektu-arduraduna.

**Europar Batasunean nola hobetu segurtasuna ibilgailu astunen garraioan.**
**Jennifer Carson.** Garraioaren Segurtasuneko Europako Kontseiluko proiektu-arduraduna.

**Bide-segurtasuna Portugalen, lehenalditik hamarkadarako estrategiara.**
**Rui Ribeiro.** Portugalgo Bide Segurtasunaren Agintaritza Nazionaleko burua.

**PANEL 1:**
Innovabide, Red Estratégica de empresas vascas comprometidas con la Seguridad Vial a través de los procesos de la gestión y de la innovación.

**Seguridad Vial y Gestión Avanzada.**
**Fernando Sierra,** director gerente de EUSKALIT, Fundación Vasca para la Gestión Avanzada

**La Seguridad Vial Laboral hacia la excelencia de la prevención.**
**Maria del Mar Crespo,** responsable de prevención de MUTUALIA.

**Apostando por la Seguridad Vial como exponente de calidad y autoexigencia.**
**Noemí Revilla,** responsable de administración de la empresa GARLAN.

**PANEL 2:**
Perspectiva Europea de la Movilidad Segura en la realidad de las organizaciones empresariales. Identificando ámbitos de mejora para las personas en la Seguridad Vial del Transporte.

**La guía electrónica Vesafe: mejorar la Seguridad Vial en el Trabajo desde una Perspectiva Europea.**
**Annick Starren.** Responsable de Proyecto de la Agencia Europea para la Seguridad y Salud Laboral.

**Cómo mejorar la Seguridad en el Transporte de los vehículos pesados en la Unión Europea.**
**Jennifer Carson.** Responsable de Proyecto del Consejo Europeo para la Seguridad en el Transporte.

**Seguridad Vial en Portugal – Del pasado a la estrategia para la década.**
**Rui Ribeiro**. Presidente de la Autoridad Nacional de Seguridad Vial de Portugal.

3. PANELA:
Laneko istripu-tasan eragiten duten kausak eta faktoreak. Hausnarketak, Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako helburuetan txertatutako erronka global berriei aurre egiteko.

Ikerketa-lana: EAEko "in itinere" eta "in mision" trafiko-istripuen azterketa deskriptibo eta erlazionala.
**Aitor Aritzeta,** Psikologian doktorea eta EHUko Psikologia fakultateko irakaslea. Eusko Jaurlaritzaren Trafiko Zuzendaritzarentzat eginiko IN-ITINERE ekimenaren zuzendaria.

Berrikuntzarako palankak. Enpresak zergatik?
**Jesús Monclús.** Mapfre Fundazioko Prebentzio eta Bide Segurtasunaren Arloko zuzendaria.

ITXIERA:
**Sonia Díaz de Corcuera.** Eusko Jaurlaritzaren Trafikoko zuzendaria.

PANEL 3:
Causas y factores que inciden en la accidentalidad laboral. Reflexiones para afrontar los nuevos desafíos globales imbricados en los Objetivos de Desarrollo Sostenible de Naciones Unidas.

Estudio de investigación: Un análisis descriptivo y relacional de los accidentes de tráfico "in itinere" e "in misión" en la CAPV.
**Aitor Aritzeta.** Doctor en Psicología y Profesor de la Facultad de Psicología de la UPV/EHU. Director de la iniciativa IN-ITINERE para la Dirección de Tráfico del Gobierno Vasco.

Palancas para la innovación. ¿Por qué las empresas?
**Jesús Monclús.** Director del Área de Prevención y Seguridad Vial de la Fundación Mapfre.

CLAUSURA:
**Sonia Díaz de Corcuera.** Directora de Tráfico del Gobierno Vasco.



## 3.4 INFORMAZIOA ETA PUBLIZITATEA

## 3.4 INFORMACIÓN Y PUBLICIDAD

### TWITTER

@TRAFIKOAEJGV

| | | |
|---|---|---|
| jarraitzaile | 27.904 | personas seguidoras |
| tuit | 106.798 | Tweets |

(Metatua, 2021eko abenduaren 31n) / (Acumulado a 31 de diciembre de 2021)

### YOUTUBE

YOUTUBE.COM/TRAFIKOAEJGV

| | | |
|---|---|---|
| bisualizazio | 62.300 | visualizaciones |
| bideo igo dira | 47 | vídeos subidos |
| harpidedun | 74 | personas suscriptoras |

### APP

TRAFIKOAEJGV

| | | |
|---|---|---|
| deskarga | 2.612 | descargas |

### WEB / WEBGUNEA

WWW.TRAFIKOA.EUSKADI.EUS

| | | |
|---|---|---|
| hilean batez besteko sarrerak | 111.308 | media accesos mensual |

### 011

| | | |
|---|---|---|
| erantzundako kontsultak | 32.287 | consultas atendidas |
| Koordinazioan | 35.033 | Coordinación |

## HEDABIDEAK

2021. urtean zehar, Trafiko Zuzendaritzak 8 prentsaurreko egin ditu, 53 prentsa-ohar atera ditu eta, guztira, hedabideen 67 eskaera izapidetu ditu.

**2021EKO DATUAK**

- Prentsaurrekoak: 8
- Prentsa-oharrak: 53
- Hedabideen eskaerak: 67

## PUBLIZITATE-KANPAINAK

2020an “Jar zaitez nire gurpiletan / Ponte en mis ruedas” izeneko publizitate-kanpaina egin da. Kanpaina hori ekainaren 14tik uztailaren 11ra zabaldu da.

Horrez gain, Bizikletan aldizkariarekin kolaborazio bat egin da, izenburu honekin: “Bide-Segurtasuneko eta Mugikortasun Segururako eta Iraunkorrerako Plan Estrategikoa 2021-2025” eta ekainetik abendura bitartean zabaldu da.

## MEDIOS DE COMUNICACIÓN

A lo largo de 2021, la Dirección de Tráfico ha realizado 8 ruedas de prensa, emitido 53 notas de prensa y tramitado un total de 67 peticiones de medios de comunicación.

**DATOS 2021**

- Ruedas de prensa: 8
- Notas de prensa: 53
- Peticiones de medios de comunicación: 67

## CAMPAÑAS DE PUBLICIDAD

En 2021 se ha realizado una nueva campaña de publicidad titulada: “Jar zaitez nire gurpiletan / Ponte en mis ruedas”, que se ha difundido del 14 de junio al 11 de julio.

Asimismo, se ha realizado una colaboración en la revista Bizikletan, bajo el nombre: “Plan Estratégico de Seguridad Vial y Movilidad Segura y Sostenible 2021-2025”, que se ha difundido de junio a diciembre.





## 3.5 DON'T BE DUMMY! PARA TI NO HAY REPUESTO(S) PROGRAMA

2021EKO BALANTZE-DATUAK

- 31 saio
- 24 udalerri
- 5.872 parte-hartzaile

2021ean, Bigarren Hezkuntzako gazteei zuzendutako kontzientziazio-programa ibiltaria 24 udalerritan egon da eta horietan 31 saio egin dira eta 5.872 ikaslek parte hartu dute. Covid19aren ondoriozko osasun-krisiaren hasieratik, ekitaldiak on line formatura egokitu dira, ikasgeletan sentsibilizazio-lana egiten jarraitu ahal izateko, eta segurtasuneko berme higieniko sanitario guztiekin.

Programa 2017an abian jarri zenetik, **56 udalerritako** (hiru hiriburuak barne) **161 ikastetxetara** heldu da eta horietara guztietara jende ugari bertaratu da. Guztira, **133 ekitaldi** programatu dira eta horietan **28.556 ikaslek** parte hartu dute. Orain arte, parte-hartzaileek ikus-entzunezko programari buruzko balorazio positiboa egin dute. Ikasleen %98k inkestan baieztatzen du ohartu dela zein garrantzizkoa den segurtasuna trafiko-istripuak prebenitzeko.

Proiektu hori Trafiko Zuzendaritzak jarri zuen abian eta hauen laguntza ere jasotzen du: Stop Istripuak Elkartea eta Bizkarrezur-muineko Lesioa Aztertzeko Elkartea (AESLEME), baita istripuen ondoriozko larrialdi egoeretan arreta ematen duten langileak ere (Ertzaintza, Udaltzaingoak, Osakidetza, Salbamenduak eta suteen itzalketa, eta Larrialdiak ere bai).

## 3.5 PROGRAMA "DON'T BE DUMMY! PARA TI NO HAY REPUESTO(S)"

DATOS BALANCE 2021

- 31 sesiones
- 24 municipios
- 5.872 participantes

En 2021 el programa itinerante de concienciación, dirigido a jóvenes de enseñanza secundaria, ha visitado 24 municipios, en los que se han realizado 31 sesiones, con la participación de 5.872 estudiantes. Desde el inicio de la crisis sanitaria derivada de la Covid19, los eventos se han adaptado al formato on line, para continuar con la labor de sensibilización en las aulas, con todas las garantías higiénico sanitarias de seguridad.

Desde su puesta en funcionamiento en 2017, el programa ha llegado a **161 centros educativos** de **56 localidades** distintas, incluidas las tres capitales vascas, en todas ellas con gran afluencia de público. En total, se han programado **133 eventos** en los que han participado **28.556 estudiantes** que, hasta el momento, han realizado un balance positivo del programa audiovisual. El 98% del alumnado encuestado afirma que ha tomado conciencia sobre la importancia de la seguridad para prevenir accidentes de tráfico.

El proyecto, puesto en marcha por la Dirección de Tráfico, cuenta con la colaboración de la Asociación Stop Accidentes y la Asociación para el Estudio Medular Espinal (AESLEME), así como con la del personal de atención de las situaciones de emergencias provocadas por los accidentes (Ertzaintza, Policías Locales, Osakidetza, Salvamentos y Extinción de Incendios, así como Emergencias).

## 3.6 ARGITALPENAK ETA AZTERLANAK

2020ko istripu-tasari buruzko datuak jasotzen dituen Urtekari Estatistikoa argitaratu da. Horrez gain, Innovabide Sareari atxikitako enpresen III. topaketa egin da eta hor hirugarren Innovabide aintzatespena banatu da eta bide-segurtasunaren kudeaketan praktika onak izateagatik nabarmendu diren enpresei Aipamen Berezia ere banatu zaie. 2021ean, Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan, beste ikerketa-lan bat egin da, "IN ITINERE ETA IN MISION ISTRIPUAK EUSKADIN 2021" izenekoa, Lanera doazen eta lanean mugitzen diren pertsonen bide-segurtasunaren gainean eragina izaten duten alderdiak aztertzen dituena.

### INNOVABIDE

Innovabide Sarea 2017an jarri zen abian, "in itinere" (lanerako joan-etorrietan) edo "in mision" (haien lana egiteko ibilgailua gidatzen duten bitartean) gertatzen diren istripuen ondoriozko hildakoen edo larri zauritutakoen kopurua %40an murrizteko helburuarekin. 2021

## 3.6 PUBLICACIONES Y ESTUDIOS

Se ha publicado el Anuario Estadístico con todos los datos de accidentalidad de 2020. Además, se ha celebrado el III Encuentro de empresas de la Red Innovabide y se ha entregado el Tercer Reconocimiento Innovabide y la Mención Especial a sendas empresas que han destacado por sus buenas prácticas en la gestión de la seguridad vial. En 2021 también se ha realizado un nuevo estudio de investigación en colaboración con la Universidad del País Vasco, "ACCIDENTES IN ITINERE E IN MISION EUSKADI 2021", que analiza los aspectos que influyen en la seguridad vial de las personas que se desplazan a trabajar y las que se mueven en sus horas de trabajo.

### INNOVABIDE

La Red Innovabide, puesta en marcha en 2017 con el objetivo de reducir un 40 % el número de personas fallecidas y heridas graves en accidentes "in itinere" (que van o vienen de su puesto de trabajo) e "in mision" (que conducen un vehículo para desarrollar su labor), ha



urtearen amaieran, bide-segurtasunarekin konpromisoa daukaten sektore ezberdinetako 63 enpresa atxiki zaizkio sare horri kudeaketa-planen bidez. Euskadiko edozein enpresa izan daiteke Innovabide Sarearen parte, inolako kosturik gabe. Horrela, enpresak kudeaketaren aldetik bide-segurtasunarekiko konpromisoa hartuko du bere gain eta ekintza zehatz eta neurgarrien bidez gauzatuko du konpromiso hori. Horrez gain, sare sozialetan agertuko da, laneko bide-segurtasunaren alde lan egiten duen enpresa gisa, eta beste erakunde batzuekin ezagutzak trukatu eta ikasi ahal izango ditu. Prozesu horren oinarria "Euskadiko enpresak bide-segurtasunaren kudeaketan hobetzeko erreferentzia markoa" da, Trafiko Zuzendaritzak sustatutakoa. Innovabidek Euskaliten laguntza ere badu.

cerrado 2021 con la adhesión de 63 empresas de diferentes sectores, comprometidas con la seguridad vial a través de sus planes de gestión. Cualquier empresa vasca puede formar parte de la Red Innovabide, sin coste alguno. De esta forma, asume un compromiso desde la gestión con la seguridad vial que se traducirá en acciones concretas y medibles, tendrá presencia en redes sociales, como empresa que trabaja por la seguridad vial laboral y podrá beneficiarse del aprendizaje y el intercambio de conocimientos con otras organizaciones. Este proceso se basa en el "Marco de referencia para la mejora de la empresa vasca en gestión de la seguridad vial", promovido desde la Dirección de Tráfico. Innovabide cuenta con la colaboración de Euskalit.

### INNOVABIDE SAREKO ENPRESEN III. TOPAKETA

Innovabide Sareak 2021ko azaroaren 25ean egin zuen enpresen III. topaketa eta, horretan, enpresetako arduradunek errepideetako istripu-tasa murrizteko eta mugikortasun seguruaren aldeko kontzientzia sustatzeko moduei buruzko esperientziak eta ezagutzak elkartrukatu zituzten. Topaketa modu birtualean egin zen, Covid19aren ondoriozko osasun-egoeragatik.

Halaber, abenduaren 15ean, erdi-presentziala izan zen ekitaldi batean, Josu Zubiaga Segurtasuneko sailburuordeak Normicro enpresari Hirugarren Innovabide aintzatespena eman zion, bide-segurtasunaren kudeaketa arloko praktika onengatik Era berean, Zima taldeko PINE hiru enpresek aipamen berezi bat jaso zuten Sonia Díaz de Corcuera Trafikoko zuzendariaren eskutik.

### III ENCUENTRO DE EMPRESAS DE LA RED INNOVABIDE

El 25 de noviembre de 2021 la Red Innovabide celebró su III Encuentro entre empresas, en el que las personas responsables de las mismas compartieron experiencias y conocimientos sobre cómo reducir la siniestralidad en carretera y fomentar una conciencia de movilidad segura. Al igual que en la edición anterior, el encuentro se desarrolló de forma virtual, debido a la situación sanitaria derivada de la Covid19.

Asimismo, el 15 de diciembre, en un evento semipresencial, el viceconsejero de Seguridad, Josu Zubiaga, hizo entrega a la empresa Normicro del Tercer Reconocimiento Innovabide, por sus buenas prácticas en la gestión de la seguridad vial. Asimismo, las tres empresas PINE del grupo Zima fueron merecedoras de una Mención especial que entregó la directora de Tráfico, Sonia Díaz de Corcuera.

### IN ITINERE ETA IN MISION ISTRIPUAK EUSKADI 2021

IN ITINERE ETA IN MISION ISTRIPUAK AZTERLANA Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Fakultateak egin du, Trafiko Zuzendaritzarako. Ekimen horrek lanera doazen eta lanean mugitzen diren pertsonen bide-segurtasun arloko beharren pertzepzioa aztertzen du.

Horretan, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako 500 langilek parte hartu dute eta, banan-banan, elkarrizketak egin zaizkie. Beste enpresa batzuetako 400 langileri ere egin zaizkie elkarrizketak.

Ikerketa-lan horren helburuak dira aztertzea nola pertzibitzen dituzten langileek beren bide-segurtasun arloko beharrak eta hobekuntza-ekintzak proposatzea, kolektibo horretako trafiko-istripuak murrizteko xedez.

### ACCIDENTES IN ITINERE E IN MISION EUSKADI 2021

El estudio sobre ACCIDENTES IN ITINERE E IN MISION EN EUSKADI, ha sido realizado por la Facultad de Psicología de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU) para la Dirección de Tráfico. Esta iniciativa analiza la percepción de las necesidades de Seguridad Vial en las personas que se desplazan a su trabajo y se mueven en sus horas laborales.

Participan en él 500 trabajadores y trabajadoras de Gipuzkoa, Bizkaia y Araba, a quienes se ha entrevistado de forma individual. Además, se ha encuestado a otras 400 personas de diferentes empresas.

Los objetivos de este trabajo de investigación son analizar cómo perciben las personas trabajadoras sus necesidades en materia de seguridad vial y proponer acciones de mejora, con el fin de reducir los accidentes de tráfico en este colectivo.

## 3.7 TRAFIKOARI ETA BIDE SEGURTASUNARI BURUZKO IKERKETA

### TRAFIKOARI BURUZKO AZTERLANAK

Bide-segurtasunaren arloko 13 azterlan egin dira: Txorierri, Zurbano, A-15 Andoain, Trabakua, Guardia, Arriaran, Zalla, A-3632, Avanzada, N-1 k.p. 452, Soraluze, Gorliz eta Gueñes.

### GARRAIO BEREZIAK

Tresna berri bat garatzeko lanak egiten ari dira. Tresna horren bidez, hauexek egin ahal izango dira: garraio berezien neurriak eta pisuak kontuan hartuta, garraio berezi horiek egin ditzaketen ibilbideak kalkulatu; bidaiak baimendutako ibilbideetatik egiten diren kontrolatu eta horren jarraipena egin; eta sortzen den informazio guztia ustiatu, garraio mota horiek kudeatzeko politikaren barruan erabaki hobeak hartzeari begira.

## 3.7 INVESTIGACIÓN DE TRÁFICO Y SEGURIDAD VIAL

### ESTUDIOS DE TRÁFICO

Se han realizado 13 estudios de seguridad vial: Txorierri, Zurbano, A-15 Andoain, Trabakua, Laguardia, Arriaran, Zalla, A-3632, La Avanzada, N-1 p.k. 452, Soraluze, Gorliz y Güeñes.

### TRANSPORTES ESPECIALES

Se está trabajando en el desarrollo de una herramienta que permitirá calcular las rutas posibles de los transportes especiales -en función de sus dimensiones y pesos-, el control y seguimiento de los recorridos efectivos por las rutas autorizadas y la explotación de toda la información generada para una mejor toma de decisiones en la política de gestión de dichos transportes.



## KUDEAKETA-TRESNAK

GPS datuetan oinarrituta txosten historikoak egiten eta trafikoaren egoera monitorizatzen duen GeoTraffic aplikazioaren prestazioak hobetu dira.

## HERRAMIENTAS DE GESTIÓN

Se han mejorado las prestaciones de la aplicación GeoTraffic que monitoriza el estado del tráfico y realiza informes históricos a partir de datos GPS.

## INTENTSITATEAK KALKULATZEKO TRESNA

Aurreko urteetan garatutako intentsitateak kalkulatzeko tresnaren prestazioak hobetu dira; eta horretarako, eredu-kurbak hobetu dira eta emaitzak kalkulatzeko eta aurkezteko erabiltzen den datu-base historikoa handitu da.

## HERRAMIENTA DE CÁLCULO DE INTENSIDADES

Se han mejorado las prestaciones de la herramienta para el cálculo de intensidades desarrollada en años anteriores mediante la mejora de las curvas-patrón, la ampliación de la base de datos histórica que se utiliza para el cálculo y la presentación de resultados.

## BIDE SEGURTASUN ARLOKO AZTERLANAK EGITEKO ANALISI-TRESNAK

Road Safety izeneko tresnaren prestazioak hobetu dira. Tresna horrek istripuetan egon ohi diren faktoreak eta kausak aztertzen laguntzen du, bereziki abiadura, kalitate handiagoko bide-segurtasuneko azterlanak lortzeko. Tresna maila nazionalean aurkezteko webinar bat egin da.

## HERRAMIENTA DE ANÁLISIS PARA LA REALIZACIÓN DE ESTUDIOS DE SEGURIDAD VIAL

Se han mejorado las prestaciones la herramienta denominada Road Safety que facilita el análisis de las causas y factores concurrentes en los accidentes, especialmente la velocidad, para la elaboración de estudios de seguridad vial de mayor calidad. Se ha realizado un webinar de presentación de la herramienta a nivel nacional.

## ITS EKIPAMENDU BERRIAK

Trabakua mendatean, BI-633 errepideko bide-tarte batean batezbesteko abiadura kontrolatzeko sistema bat instalatu da, hau da, bide-tarteko radar bat, hori baita sistema horren izan arrunta. Horrez gain, Andoainen, A-15 errepidean radarrerako kabina berri bat instalatu da.

## NUEVOS EQUIPAMIENTOS ITS

Se ha finalizado la instalación de un sistema de control de velocidad media, comúnmente denominado radar de tramo, en un tramo de la carretera BI-633, en el puerto de Trabakua. Además, se ha instalado una nueva cabina de radar en la carretera A-15 en Andoain.



# 3.8 TRAFIKOAREN KUDEAKETA ETA KONTROLA

## TRAFIKOAREN ZAINTZA- ETA KONTROL-KANPAINAK

Sonia Díaz de Corcuera Trafikoko zuzendariak, urtarrilaren 29an, Ertzaintzak, udaltzaingoekin lankidetzan, 2021ean egindako Zaintza eta Kontrol kanpainen egutegia aurkeztu zuen. Lan-bilera hori Ertzaintzaren Erandioko egoitza zentralean egin zen eta, horretan, Aitor Lete Segurtasuna Koordinatzeko zuzendaria, Iñigo Ibarra Ertzaintzako Trafikoko Burutza Nagusiko intendentea, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako udaltzaingoen ordezkariak eta Ertzaintzaren Trafikoko Lurralde Unitateen arduradunak egon ziren. 46 kanpaina egin ziren hainbat arrisku-faktore (abiadura, arreta galtzea, alkohola eta drogak ...) begiratzeko eta arreta berezia jarri zitzaion moto-gidarien gidatzeko abiadura kontrolatzeari. Zaintza eta kontrol kanpainen helburuak bide-segurtasuna hobetzea eta trafiko-istripuen ondoriozko biktimen kopurua murriztea dira.

2021ean Ertzaintzak jarduera hauek egin zituen:

**Prebentiboak:**

- Alkoholemia-proba prebentiboak: 21.557
- Droga-proba prebentiboak: 1.713
- Kaskoaren, segurtasun-uhalaren kontrola. Zenbat ibilgailuri: 21.711
- Abiadura-kontrolak. Zenbat ibilgailuri: 1.248.590

# 3.8 GESTIÓN Y CONTROL DEL TRÁFICO

## CAMPAÑAS DE VIGILANCIA Y CONTROL DE TRÁFICO

La directora de Tráfico, Sonia Díaz de Corcuera, presentó el 29 de enero el Calendario de las campañas de Vigilancia y Control que la Ertzaintza, en colaboración con las Policías Locales, llevó a cabo en 2021. A la reunión de trabajo celebrada por videoconferencia desde la sede central de la Ertzaintza, en Erandio, asistieron el director de Coordinación de Seguridad, Aitor Lete; el intendente de la Jefatura Central de Tráfico de la Ertzaintza, Iñigo Ibarra, representantes de las Policías Locales de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa y responsables de las Unidades Territoriales de Tráfico de la Ertzaintza. Se planificaron 46 campañas, orientadas a vigilar diversos factores de riesgo (velocidad, distracciones, alcohol y drogas…), con especial atención al control de velocidad en el colectivo de motoristas. El objetivo de las campañas de control y vigilancia es mejorar la Seguridad Vial y reducir el número de víctimas por accidente de tráfico.

En 2021 la Ertzaintza realizó las siguientes actuaciones:

**Preventivas:**

- Pruebas preventivas de alcoholemia: 21.557
- Pruebas preventivas de drogas: 1.713
- Controles casco-cinturón. . Número de vehículos controlados: 21.711
- Controles de velocidad. Número de vehículos controlados: 1.248.590

**Istripua edo arau-haustea:**

- Droga-probak, istripu baten ondorioz: 372
- Droga-probak, arau-hauste baten ondorioz: 1.687
- Alkoholemia-probak, istripu baten ondorioz: 7.291
- Alkoholemia-probak, arau-hauste baten ondorioz: 1.538

## NEGUKO BIDEZAINTZA PLANA

2021ean 8 aldiz aktibatu zen Neguko Bidezaintza Plana, jarraipen- eta informazio-fasean (elur-kota 1000 metrotik behera eta prezipitazio handiak). Horrez gain, 3 aldiz igaro zen fase operatibora, prezipitazio handiekin batera, elur-kota 700 m-tik behera jaisteagatik.

Foru Aldundietako/Autobideetako elurra kentzeko makinak mobilizatu ziren (201), Trafiko Zuzendaritzaren garabi astunak (7) eta Bideko Koordinazio-postuak (Ertzaintzako agente batez eta Errepideen zaintzarako teknikari batez osatutako patruilak, bien artean hiru lurralde historikoetan bide sarearen egoera ebaluatzeko).

**Accidente o infracción:**

- Pruebas de drogas por accidente: 372
- Pruebas de drogas por infracción: 1.687
- Pruebas de alcoholemia por accidente: 7.291
- Pruebas de alcoholemia por infracción: 1.538

## PLAN DE VIALIDAD INVERNAL

En 2021 el Plan de Vialidad Invernal se activó en 8 ocasiones en su Fase de Seguimiento e Información (cota de nieve por debajo de los 1.000 metros con precipitaciones importantes). Además, en 3 ocasiones se procedió a pasar a la Fase Operativa, por descenso de la cota de nieve por debajo de los 700 metros, acompañado de precipitaciones intensas.

Se movilizaron máquinas quitanieves de las Diputaciones Forales/Autopistas (201), grúas pesadas de la Dirección de Tráfico (7) y los Puestos de Coordinación Vial (patrullas compuestas por un/una agente de la Ertzaintza y un/una técnico de Conservación de Carreteras, con la misión de evaluar conjuntamente el estado de la red viaria en los tres Territorios Históricos).



## TRAFIKOKO OPERAZIO BEREZIAK

Udan, irteera-operazioan, uztaileko azken asteburuan eta abuztuko lehenengoan ez ziren nazioarteko trafikoaren arintasuna bermatzeko egin ohi diren seinale-operatiboak egin, bigarren urtez jarraian Itsasartea Pasatzeko Operazioa bertan behera geratu baitzen.

2021eko irailean, alarma-egoera amaituta, COVID-19ari aurre egiteko higiene-neurriak gogorarazteko kartelak kendu ziren. Kartel horiek AP-8/AP-1/N-622/A-1 nazioarteko ibilbideko zerbitzuguneetan jarri ziren 2020ko udan, prebentzio-helburuekin.

Horretaz aparte, itzulera-operazioan, Armiñongo lotunean seinale-operatiboak egin ziren egun hauetan: abuztuaren 19a,20a, 21a, 22a, 26a, 27a, 28a eta 29a (lehengo AP-1eko irteeraren eta A-1en arteko lotura, Vitoria-Gasteizko noranzkoan).

## OPERACIONES ESPECIALES DE TRÁFICO

En verano, en Operación Salida, no se llevaron a cabo los operativos de señalización habituales para garantizar la fluidez del tráfico internacional en el último fin de semana de julio y en el primero de agosto, como consecuencia de la suspensión, por segundo año consecutivo, de la Operación Paso del Estrecho.

En septiembre de 2021, tras el fin del estado de alarma, se retiraron los carteles recordatorios de las medidas higiénicas frente a la COVID-19, instaladas con fines preventivos en las áreas de servicio de la ruta internacional AP-8/AP-1/N-622/A-1 en el verano de 2020.

Por otra parte, durante la Operación Retorno, se realizaron operativos de señalización en el nudo de Armiñón los días: 19, 20, 21, 22, 26, 27, 28 y 29 de agosto (enlace de la A-1 con la salida de la antigua AP-1, sentido Vitoria-Gasteiz).



# 4. PROZEDURA ADMINISTRATIBOAK

## 4.1 ZEHAPEN-ESPEDIENTEAK ETA BAIMENAK

- Trafikoko araudiaren aurkako arau-hausteen ondoriozko zehapen-espediente amaituak: 331.444
- Atzerriko matrikula duten ibilgailuen abiadura arau-hausteen ondoriozko zehapen-espediente amaituak: 49.718
- Administrazio-bidean ebatzi diren errekurtsoak: 3.863
- Ezaugarri teknikoengatik edo garraiatzen duten zama banaezinagatik arauz ezarritako gehienezko masak eta neurriak gainditzen dituzten ibilgailuei emandako baimen bereziak: 5.315
- Osaera euromodularreko ibilgailuei (EMS) emandako baimenak: 117
- Gidarien eskola partikularrei, horietako langileei eta ibilgailuei dagokienean, ibilgailuen alta-, baja- eta aldaketa-espedienteen kop.: 632
- Lokaletako eta ibilgailuetako ikuskapenak: 193
- Zirkulazio-baimen bereziak data murriztaileetan: 114
- Lanei eta beste ekitaldi batzuei buruzko jarraibideak: 4.787

# 4. PROCEDIMIENTOS ADMINISTRATIVOS

## 4.1 EXPEDIENTES SANCIONADORES Y AUTORIZACIONES

- Expedientes sancionadores por infracciones a la normativa de tráfico finalizados: 331.444
- Expedientes sancionadores por infracciones de velocidad de vehículos con matrícula extranjera sin parada finalizados: 49.718
- Recursos resueltos en vía administrativa: 3.863
- Autorizaciones especiales para los vehículos que, por sus características técnicas o por la carga indivisible que transporten, superen las masas y dimensiones máximas reglamentariamente establecidas: 5.315
- Autorizaciones a vehículos de composición Euromodular (EMS): 117
- Expedientes de alta, baja y modificaciones de vehículos respecto a escuelas particulares de personas conductoras, personal y vehículos: 632
- Inspecciones de locales y de vehículos: 193
- Autorizaciones especiales de circulación en fechas restrictivas: 114
- Instrucciones de obras y otros eventos: 4.787



## 4.2 KIROL PROBAK

Trafiko Zuzendaritzak EAEko hiriarteko bideetatik guztiz edo zati batean igarotzen diren lasterketa, lehiaketa, txapelketa eta, oro har, kirol-probak baimentzen ditu eta horiei buruzko informazioa ematen du.

- Trafiko Zuzendaritzak emandako baimenak: 185
- Trafiko Zuzendaritzak tramitatutako eta DGTk baimendu beharreko espedienteak. 12

EAEn egindako kirol-probetan baliabide hauek mobilizatu dira (Ertzaintzaren laguntzaren datuak):

- Agenteak: 1.586
- Autoak: 174
- Motoak: 634

## 4.2 PRUEBAS DEPORTIVAS

La Dirección de Tráfico autoriza e informa sobre las carreras, concursos, certámenes y pruebas deportivas en general, que discurran total o parcialmente por vías interurbanas de la CAE.

- Autorizaciones concedidas por la Dirección de Tráfico: 185
- Expedientes tramitados por la Dirección de Tráfico y a autorizar por la DGT: 12

Recursos movilizados en las pruebas deportivas celebradas en la CAE (datos de acompañamiento de la Ertzaintza):

- Agentes: 1.586
- Coches: 174
- Motos: 634

## 4.3 BIDE SEGURTASUN BATZORDEA

- Osoko Bilkuraren eta Batzorde Iraunkorraren bilera (2021/03/03).
- Osoko Bilkuraren ez-ohiko bilera (2021/09/09).

## 4.3 COMISIÓN DE SEGURIDAD VIAL

- Reunión del Pleno y del Comité Permanente (03/03/2021).
- Sesión extraordinaria del Pleno (09/09/2021).



## 4.4 INSTRUKZIOAK

- 1/2021 Instrukzioa, 2021. urteko trafikoaren zaintza- eta kontrol-kanpainak.
- 2/21 Instrukzioa, zirkulazio-murrizketak dauden datetan zirkulatzeko baimen bereziak.
- 3/21 Instrukzioa, IEOren IX. eranskineko "Gehieneko masa baimenduak" izeneko 2. taula aldatzea: 5 ardatz edo gehiagoko ibilgailu artikulatuak garraio intermodaleko eragiketetan.
- 4/21 Instrukzioa, auto eskolta erregimenean eta 3 ibilgailu-taldera arteko konboi batean zirkulatzeko ibilbide baimenduak.
- 5/21 Instrukzioa, 8/2016 Instrukzioko (EMS) eranskin hauek aldatzekoa: VII. eranskina "Prozedura" eta VIII eranskina "Eskabidea eta dokumentazioa".
- 6/21 Instrukzioa, EAEn zirkulazio-murrizketak dauden datetan eta ibilbideetan zirkulatzeko baimen bereziak.
- 7/21 Instrukzioa, Zirkulazio Erregelamendu Orokorrean eta Ibilgailuen Erregelamendu Orokorrean egindako aldaketen ondorioz, arau-hausteen zerrenda kodifikatua aldatzekoa. Erregelamendu horietako aldaketak Bide Publikoetako Laguntza Zerbitzuak arautzen dituen martxoaren 16ko 159/2021 Errege Dekretuaren Azken Xedapenetako lehenengoan eta bigarrenean jasotzen dira.

## 4.4 INSTRUCCIONES

- Instrucción 1/21, Campañas de vigilancia y control de tráfico durante el año 2021.
- Instrucción 2/21, Autorizaciones especiales para circular en fechas especialmente restrictivas.
- Instrucción 3/21, Modificación de la Tabla 2 "Masas máximas autorizadas" del anexo IX del RGV: vehículos articulados de 5 o más ejes en operaciones de transporte intermodal.
- Instrucción 4/21, Itinerarios autorizados para circular en régimen de autoescolta y en convoy de hasta 3 conjuntos.
- Instrucción 5/21, Modificación de los anexos VII "Procedimiento" y VIII "Solicitud y documentación" de la Instrucción 8/2016 (EMS).
- Instrucción 6/21, Autorizaciones especiales para circular en fechas e itinerarios restringidos en la CAPV.
- Instrucción 7/21, Modificación de la relación codificada de infracciones como consecuencia de las modificaciones del Reglamento General de Circulación y del Reglamento General de Vehículos contenidas en las Disposiciones finales primera y segunda del Real Decreto 159/2021, de 16 de marzo, por el que se regulan los servicios de auxilio en las vías públicas.

## 4.5 EBAZPENAK

- 2021eko otsailaren 3ko Ebazpena, Trafikoko zuzendariarena, 2021. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko trafikoa arautzen duten neurri bereziak ezartzeko dena.

- 2021eko martxoaren 18ko Ebazpena, Trafikoko zuzendariarena, zeinaren bidez San Jose zubirako eta Aste Santurako aurreikusitako zirkulazio-murrizketak kentzen baitzaizkie 7.5000 kg-tik gorako GMB daukaten salgaien garraiorako ibilgailuei, baimen osagarria behar duten ibilgailuei eta ibilgailu bereziei, 2021eko otsailaren 3ko ebazpenaren II. eranskinean jasotakoak (2021. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko trafikoa arautzen duten neurri bereziak ezartzeko dena).

- 2021eko apirilaren 9ko Ebazpena, Trafikoko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko bide-sarean zinemometroak zein irudiak grabatzeko eta erreproduzitzeko beste zenbait tresna osagarri instalatzea eta erabiltzea baimentzen duena, trafikoaren kontrol, erregulazio, zaintza eta diziplina helburu.

## 4.5 RESOLUCIONES

- Resolución de 3 de febrero de 2021, de la directora de Tráfico, por la que se establecen medidas especiales de regulación de tráfico durante el año 2021 en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

- Resolución de 18 de marzo de 2021, de la directora de Tráfico, por la que se levantan las restricciones a la circulación previstas para el puente de san josé y la semana santa a los vehículos de transporte de mercancías de más de 7.500 kg de MMA, a los vehículos que precisan autorización complementaria y a los vehículos especiales, recogidas en el anexo II de la resolución de 3 de febrero de 2021, de medidas especiales de tráfico durante el año 2021 en la CAPV.

- Resolución de 9 de abril de 2021, de la directora de Tráfico, por la que se autoriza la instalación y uso de cinemómetros y sus dispositivos complementarios de captación y reproducción de imágenes destinados al control, regulación, vigilancia y disciplina del tráfico en un punto de la red viaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco.



- 2021eko maiatzaren 4ko Ebazpena, Trafikoko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko bide-sarean zinemometroak zein irudiak grabatzeko eta erreproduzitzeko beste zenbait tresna osagarri instalatzea eta erabiltzea baimentzen duena, trafikoaren kontrol, erregulazio, zaintza eta diziplina helburu.

- 2021eko maiatzaren 5eko Ebazpena, Trafikoko zuzendariarena, zeinaren bidez kentzen baitzaizkie 7.500 kg-tik gorako GMB duten salgaien garraiorako ibilgailuei maiatzaren 7 eta 8rako ezarritako zirkulazio-murrizketak, 2021. urtean EAEko trafikoa arautzen duten neurri bereziak ezartzen dituen 2021eko otsailaren 3ko ebazpenaren II. eranskineko 2 ataleko 6. puntuan ezarritakoak.

- 2021eko urriaren 22ko Ebazpena, Trafikoko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko bide-sarean zinemometroak zein irudiak grabatzeko eta erreproduzitzeko beste zenbait tresna osagarri instalatzea eta erabiltzea baimentzen duena, trafikoaren kontrol, erregulazio, zaintza eta diziplina helburu.

- Resolución de 4 de mayo de 2021, de la directora de Tráfico, por la que se autoriza la instalación y uso de cinemómetros y sus dispositivos complementarios de captación y reproducción de imágenes destinados al control, regulación, vigilancia y disciplina del tráfico en un punto de la red viaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

- Resolución de 5 de mayo de 2021, de la directora de Tráfico, por la que se levanta la restricción a la circulación de los vehículos de transporte de mercancías de más de 7.500 kg de MMA prevista para los días 7 y 8 de mayo en el punto 6 del apartado 2º del anexo II de la resolución de 3 de febrero de 2021, de medidas especiales de tráfico durante el año 2021 en la CAPV.

- Resolución de 22 de octubre de 2021, de la directora de Tráfico, por la que se autoriza la instalación y uso de cinemómetros y sus dispositivos complementarios de captación y reproducción de imágenes destinados al control, regulación, vigilancia y disciplina del tráfico en la red viaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

## 4.6 ZEHAPEN-ESKUMENAK BERE GAIN HARTZEA

Trafiko Zuzendaritzak trafikoaren, ibilgailu motordunen zirkulazioaren eta bide-segurtasunaren arloan zehatzeko eskumena bere gain hartu du Okondo udalerriko hiri barruko bideetan egiten diren arau-hausteei dagokienean (2021/01/22)

Era berean, Trafiko Zuzendaritzak jarraitu du Asteasuko (2021eko uztailaren 26a) eta Orozkoko (2021eko uztailaren 26a) udaletako zehapen-eskumena bere gain izaten.

Interesdunak eskatuta, Idiazabalgo Udalari itzuli zaio (2021/03/05) hiri barruko bideetan egiten diren trafikoaren, ibilgailu motordunen zirkulazioaren eta bide-segurtasunaren arloko arau-hausteak zehatzeko eskumena.

## 4.6 ASUNCIÓN DE COMPETENCIAS SANCIONADORAS

La Dirección de Tráfico ha asumido la competencia sancionadora en materia de tráfico, circulación de vehículos a motor y seguridad vial por las infracciones cometidas en las vías urbanas del municipio de Okondo (22/01/2021).

Asimismo, se ha continuado en la asunción de competencias sancionadoras de los ayuntamientos de Asteasu (26 de julio de 2021) y Orozko (26 de julio de 2021).

A solicitud del interesado se ha revertido la competencia sancionadora en materia de tráfico, circulación de vehículos a motor y seguridad vial por las infracciones cometidas en las vías urbanas del municipio de Idiazabal (05/03/2021).

# 5. PLAN ESTRATEGIKOA 2021-2025

Gobernu Kontseiluak 2021eko irailaren 14an onartu zuen Euskadiko Bide Segurtasuneko eta Mugikortasun Seguru eta Iraunkorrerako Plan Estrategikoa 2021-2025. Estrategia global bat da, Euskadiko errealitateari egokituta, eta haren helburu nagusia da 2030 urterako, 2020. urtearen aldean, trafiko-istripu baten ondorioz hildako eta larri zauritutako pertsonen kopurua %50ean murriztea. Horregatik jasotzen da 2050eko Ortzimugan istripu-tasaren murrizketa, hildakoen eta larri zauritutakoen Zero Ikuspegiarekin. Helburu global hori partekatzen dute Nazio Batuen Agenda Global 2030ri jarraitzen dioten herrialde guztiek.

Eusko Jaurlaritzak arlo horretarako daukan estrategiaren misioa Euskadiko bide-sarearen erabiltzaileen ongizatea eta segurtasuna hobetzen laguntzea da, horretarako, bide-segurtasuna, trafikoaren arintasuna

# 5. PLAN ESTRATÉGICO 2021-2025

El Plan Estratégico de Seguridad Vial y Movilidad Sostenible de Euskadi 2021-2025 fue aprobado el 14 de septiembre de 2021 por el Consejo de Gobierno. Se trata de una Estrategia global adaptada a la realidad de Euskadi, que se marca como objetivo fundamental reducir en un 50% el número de personas fallecidas y personas heridas graves como consecuencia de un accidente de tráfico en 2030, con respecto a 2020. Una reducción de la accidentalidad con una Visión Cero personas fallecidas y lesionadas graves en el horizonte 2050 por este motivo. Es un objetivo global, compartido por todos los países que atienden a la Agenda Global 2030 de Naciones Unidas.

La Misión con la que nace la Estrategia del Gobierno Vasco en esta materia pasa por contribuir al bienestar y la seguridad de las personas usuarias de la red viaria



eta prebentzioan, koordinazioan eta herritarren eta erakundeen erantzunkidetasunean oinarritutako mugikortasun segurua eta iraunkorra sustatuz.

Plan estrategikoaren bisioa istripu-tasa murriztea da, trafiko-istripuen ondoriozko Zero Biktimen Ikuspegiak gidatuta eta, horri esker, Euskadi, Europa mailan, bide-segurtasunaren eta trafikoko kudeaketaren arloko erreferente gisa ager dadin lortzea; hildakoen eta lesio larriak dituztenen kopurua murrizteko helburu globalak beteta.

Planaren printzipio gidariak hauek dira: hurbiltasuna, konfiantza, konpromisoa, lidergoa eta ekipoa, bilakaera, gobernu ona eta gardentasuna eta zerbitzu-bokazioa. Plana Nazio Batuen GJHekin lerrokatuta dago eta Europako Estrategiak 2020-2030hamarkadarako dituen helburuekin; eta Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorrari (2025) lotuta dago. Genero ikuspegia txertatu zaio eta Euskadiko istripu-tasa murrizteko erronkarekin konprometitutako eragile eta erakundeek parte hartu dute.

Planak hainbat erronka eta ildo estrategiko ditu hauek lortzeko: trafikoaren kudeaketan eta bide-segurtasunaren hobekuntzan inplikatutako entitate guztien arteko koordinazio-mekanismoak finkatzea, kolektibo zaurgarrien babesa hobetzea eta hiri arteko bideetako bide-segurtasuna gehiago babesteko tresnak ezartzea. Proiektu berrien artean, Bide Segurtasunaren aldeko Euskal Ituna aipatu behar da. Planteamendu berri bat da, orain lantzen ari dena eta bide-segurtasunean interesa daukaten entitate, eragile eta erakundeek atxikitzeko aukera ematen duena, trafiko-istripuen ondoriozko zero biktima lortzeko erronka handi horrekin konpromisoan oinarritutako estrategia partekatu baten esparruan.

vasca mediante la promoción de la seguridad vial, la fluidez en el tráfico y la movilidad segura y sostenible basada en la prevención, la coordinación y la corresponsabilidad institucional y ciudadana.

La Visión que plantea el Plan Estratégico pasa por reducir la accidentalidad con una Visión Cero víctimas como consecuencia de un accidente de tráfico y, con ello, situar a Euskadi como un referente a nivel europeo en materia de seguridad vial y gestión del tráfico, cumpliendo los objetivos globales de reducción del número de víctimas mortales y personas con graves lesiones.

El Plan contempla los Principios de cercanía confianza, compromiso, liderazgo y equipo y evolución, transparencia y buen gobierno y vocación de servicio. Es un Plan alineado con los ODS de Naciones Unidas, con los objetivos de la Estrategia Europea para la década 2020-2030 y vinculado al Plan General de Seguridad Pública Vasca 2025. Se ha proyectado con perspectiva de género y ha contado con la participación de instituciones y agentes comprometidos con el reto de reducir la accidentalidad en Euskadi.

El Plan plantea una serie de Retos y de Líneas Estratégicas orientadas a consolidar los mecanismos de coordinación entre todas las entidades implicadas en la gestión del tráfico y la mejora de la seguridad vial, a mejorar la protección de los colectivos más vulnerables y a implementar herramientas para incrementar la protección de la seguridad vial en las vías interurbanas. Entre los proyectos novedosos destaca el Pacto Vasco por la Seguridad Vial, un planteamiento en el que se está trabajando y que contempla la adhesión de entidades, instituciones y agentes interesados en la movilidad segura a un nivel de Estrategia compartida basada en el compromiso con este gran desafío de cero víctimas por accidente de tráfico.

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO